

## HAINBAT SOFTWARE AZTERTZEN

Software didaktikoen azterketa egiteko, hainbat eremutan egin beharko duzue gogoeta-lana. Jarraian, bakoitzean bildu beharrekoak zehaztuko zaizkizu:

- 1. Programaren informazio nagusia:** nork egin den, nori zuzendutakoa den (maila, zikloak...), noiz egindakoa den, jorratzen duen gaia orokorrean...
- 2. Eduki eta helburuak zehaztu:** programak gaiari lotutako zein eduki eta zein helburu dituen identifikatu beharko duzu. Gogoan izan ezazu kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak izan daitezkeela.
- 3. Metodologia deskribatu:** programak proposatutako metodologia deskribatu beharko duzu. Zorro honetan txertatzen dira erabiltzen diren estrategia guztiak ikasleak ikasteko: ulermena edo hausnarketa bultzatu, errepikapenetan oinarritu, esperientziazkoak sustatu, zerbait sortu, motibazioa bultzatu, laguntzak planteatu, azalpenak eman... Hori guztia aipatzerakoan, adibideekin zuen erantzuna argudiatu behar duzue. Adibidez, motibazioa bultzatzen bada, zehaztu behar duzue zer egiten den horretarako: adibidez, oso ondo esaten duen animalia bat jarri, musika erabili...
- 4. Programak proposatutako jardueren zerrenda osatu:** programek eskatzen duten ekintza guztiak zerrendatu beharko dituzu: irudiak margotu, batuketak egin, falta den hitza jarri eta abar.
- 5. Programa osotasunean baloratu:** programarekiko zure balorazioa egin beharko duzue ongi argudiatuz emandako iritzia.